

Interes-Tasa

Euriborra 2016. urteko urria: Batez besteko kotizazioa = % -0,069; Azken eguneko kotizazioa = % -0,069

AEBetan interes tasak gora egingo duen ustea areagotu da, EBZaren diru-politika, ordea, aldaketarik gabe mantendu da. Euriborrak beherantz jarraitzen du.

Trumpen garaipenarekin, **AEBetan inflazio-espektatibak handitu** dira, eta ondorioz Fed-ek **abenduan interes tasa igoko duen ustea areagotu** egin da.

Eurogunean, bestalde, interes tasa eta zorra erosteko programa berdin mantendu dira. **EBZak, gainera, aktiboak erosteko programaren amaiera** (2017ko martxorako espero dena) **pixkanaka etorriko dela bermatu** du.

Bereziki hedagarria den diru-politika mantentzen da beraz. Testuinguru honetan, **Euriborraren batez besteko kotizazioa % -0,069an** kokatu da **urrian**, beheranzko bilakaera erakusten duen bigarren hilabetea da jarraian abuztuan zertxobait gora egin eta gero.

Urriaren amaieratik eta azaroaren erdialdera arte, Euriborraren eguneko kotizazioak nolabaiteko egonkortasuna erakutsi du, hala ere, harrezkero, beherazko joera indartsua erakusten du berriro eta **azaroaren 24ean % -0,079an** kokatu da.

Hilabeteko batezbestekoa % -0,073an koka liteke.

Interes-tasen eguneroko bilakaera

12 hilabeterako Euriborra eta interes tasa ofiziala

